

JOAN ZAIZKIGUNAK GOGORATUZ

Ikasiz goaz ikasgai latza
 bai denboraren katean:
 argia eta iluna ari
 direla gure artean.
 Felix, agurrik gabe joan zinen
 urriko hamabostean;
 harrezkero gu tristuraz gaude
 zu hemen ez izatean,
 baina fedez deika ari gara
 esperantzaren atean.

Errautsak nekez itzaliko du
 bere barneko txingarra;
 alderantziz da: han gordetzen du
 geroko bizi-indarra,
 isilpe hartan entzunaraziz
 itxaropen-deiadarra
 eta iragarritz barne hartatik
 noizbait jaikiko den garra;
 itxurengatik ez galdu inoiz
 sinesmenaren iparra.

AMONATXO BATI BERE URTEBETETZEAN

Urteak bana-banaka doaz
pisua gugan utzita,
une batzutan gure bizitza
nahiko zakar igurtzita;
protesta ere egiten dugu
gehiegitxo iritzita;
baina bizitza ederra da-ta
maitasun gartsuz eutsita,
gaur zuregana nator, Fernanda,
ni zorion-irrintzika.

Nabaritzen zen lore-usaina,
gaur, maiatzak hogeita hamar,
udaberrian txorien kantak
dio jaikitzeke azkar;
horma-txoria isildu gabe
kantatzen ari da marmar,
egun honetan gure bihotzak
pozez egiten du dar-dar;
Fernandarentzat haizeak ere
zorion-agurra dakar.

Luis Baraiazarra